



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 21a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (2. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer balorazio egiten duen Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren funtzionamenduari buruz, pribatizatu zirenetik urtebete igarota, Marisa de Simón Caballero andreak egina (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren konpromisoari buruzkoa, Tuterako Ospitaleko eraikin berriko operazio-gelak, dilatazio-gelak, erditzeko gelak eta gainontzeko gelak 2014an funtzionamenduan egon daitezen, Enrique Martín de Marcos jaunak egina (5. or.).
- Galdera, Administrazioa "mehetze" aldera Gobernuko lehendakariak hartutako ekimenei, helburuei eta irizpideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroan FMko irrati-lizentziak edo -frekuentziak banatzeari buruzko epai irmoak betetzeari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Administrazioa mehetze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak dituen asmoei buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (7. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Parlamentuko Araudari jarraikiz, honako mozioa aurkezten du, iragan urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran jorratutako jabelduratik eratorritakoa. Hartara, heldu den urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin eskatzen du.

Zioen azalpena

Nafarroako gehiengo politikoak, hezkuntza komunitateak eta jendarteak garbi du LOMCE ez dela Nafarroako hezkuntza sistemak behar duena. Alde batetik, ez zaiolako gure errealitateari, ez eta gure beharrei lotzen eta, bestetik, legeak hezkuntzaren kontzepzioari eta antolaketari dagokionez izugarrizko inboluzioa dakarrelako. Izan ere, sistemaren kalitatea hobetzeko aitzakiaz, PPK bere

ideologia eskuindarra, atzerakoia eta uniformizatzailea ezarri nahi du.

Legeak denontzako kafea ezarri nahi du. Estatuko batez besteko eskola uzte eta eskola porrot datuak, PISAko emaitzak hartzen ditu abiapuntu, halako erreforma bat planteatzeko. Garbi dago, halere, Nafarroako adierazleek ez dutela halako erreforma bat justifikatzen, nahiz eta errezeta berbera inposatu nahi zaigun.

Helburu zentralizatzailea eta uniformizatzailearen adibide garbiena dugu kanpo proben sistema. Estatutik diseinatutako probak, berdinak erkidego guztietan. Horren bidez, curriculuma erabat baldintzatzea bilatzen da eta titulazioa bera baldintzatuko dute. Praktikan, curriculum bertikaldu eta erkidegoak tarterik gabe uzten dira. Bertako eduki-ei toki eskasa geratzen zaie. Wertek hitzetan, Espainian curriculum homogeenagoa behar omen da, ez erkidego bakoitzak berea.

Hezkuntzaren kontzepzioan beste atzerapausu larri batzuk ematen ditu, gure ustez. Esaterako, berdintasunari eta hezkidetzari, emakumeon eskubideei dagokion guztia desagertu egiten da.

Balio-hezkuntzan atzera, eta kontzepzio horretan ikasleak zenbakiak diren ideia gailentzen da. Izan ere, ranking-en arabera sailkatuko baita euren balioa eta definituko da euren etorkizuna. Ikasleen aniztasunaren eta ikasleen aukera-berdintasunaren kontra zuzenean jotzen du. Horren arabera planteatzen da ikasleen bereizkeria goiztiarra, aukerakotasuna murriztea, ibilbideak murriztea...

Hezkuntzaren ikuspegi merkantilistan oinarritutako legea dugu, eta ez ikuspegi pedagogiko edo integratzailean. Erreforma honen helburua hezkuntza eta ikasleak ekonomiaren, enpresen eta merkatuen beharren baitara moldatzea dela. Hori, "enpleagarritasuna" hobetzeko. Horren baitan

aldatzen da DBHko 4. ikasturtea, moldatzen da Lanbide Heziketa eta sortzen da “prestakuntza eta ikasketa kontratua.” Enpresen mesedetara.

Horixe da lege honek atzean daukan hezkuntzaren kontzepzioa. Europa ahotan erabili arren, gainera, bertatik planteatzen den ildotik urruntzen da. Edukiak ez, gaitasunak lehenetsi behar direla, jakite hutsak ez, baizik egiten jakiteak daukala garrantzia. Werten curriculumean, jakiteak du lehentasuna oraindik ere. Izan ere, hitzaurrean dio gaitasunetan heztea bultzatuko dela, baina edukiak ikastearen osagarri gisa, beti ere.

LOMCEk bere baitan duen hezkuntzaren kontzepzio hau eta uniformizazio planteamendua kaltegarria geure hezkuntza sistemarako. Horren aurrean, geure errealitateari, gure beharrei erantzungo dieten hezkuntza neurriak eta planteamendua egin beharrean gaudela argi dago. Baita curriculum definitzeko gaitasuna eta kalitatezko sistema publikoa eraikitzeko baliabideak behar ditugula ere.

Iribas kontseilariak osoko bilkuran esandakoaren arabera, LOMCE ez da gure legea, eta nafar erara ezartzeko asmoa dauka. Nola egingo duen, zalantza handiak ditugu. Garbi duguna da Nafar Gobernuak geure eskumenak baliatu eta geure errealitate eta beharrak aintzat hartzeko betebeharra daukala. Eta hori guztia, hezkuntza eragile guztien parte hartzearekin aztertu eta definitu behar da, zalantzarik gabe.

Honengatik guztiarengatik aurkezten dugu honako ebazpen proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak LOMCE errefusatu egiten du, eta 2013ko irailaren 20an eztabaidatu zen 8-13/MOC-00126 mozioan onartutakoa berresten du. Alegia, Nafar Gobernuak premiatzen du bide guztiak urra ditzan LOMCE Nafarroan ezar ez dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hezkuntza eragile guztiekin prozesu parte-hartzaile sakona abian jar dezan, geure errealitate eta beharrak aztertu eta ekarpenak jasotze aldera, ahalik eta kontsentsu handiena bilatu asmoz. Prozesu horretatik eratorriko den proposamena Parlamentuan aurkeztuko du Hezkuntza kontseilariak.

3. Nafarroako Parlamentuak, era berean, konpromisoa adierazten du prozesu horretan inplikatzeko, hezkuntza eragile ahalik eta gehienak entzuteko, ekarpenak biltzeko, eta adostasunak lortzen saiatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako hezkuntza komunitatearen interesak eta beharrak babes ditzan, geure eskumenak balia ditzan eta, hartara, legearen aurkako konstituzionalitate helegitea ezar dezan. Hortaz, prozesu parte-hartzaile eta juridiko hau guztia abian dagoen bitartean, LOMCEren ezarpena abian jar ez dezan premiatzen dugu Nafarroako Gobernuak.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer balorazio egiten duen Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren funtzionamenduari buruz, pribatizatu zirenetik urtebete igarota.**MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea Gobernuak zer balorazio egiten duen Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren funtzionamenduari buruz, pribatizatu zirenetik urtebete igarota.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du,

Nafarroako Gobernuak heldu den urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 21ean, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen zerbitzua kanpora atera zenetik urtebete beteko da. Zerbitzu horren esleipena hartu zuen enpresa pribatua ospitaleko gaixoen elikaduraz arduratzen denetik arazo ugari gertatu dira, mota askotakoak, zerikusia dutenak besteak beste janariaren kalitatearekin eta osasungarritasunarekin, langileekin, edo janariaren prezioarekin.

Galdera:

Gobernuak zer balorazio egiten du, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua pribatizatu zirenetik urtebete igarota, ospitaleko gaixoen elikaduraren kalitateari buruz eta enpresa pribatuaren kudeaketari buruz?

Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari itzultzea?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren konpromisoari buruzkoa, Tuterako Ospitaleko eraikin berriko operazio-gelak, dilatazio-gelak, erditzeko gelak eta gainontzeko gelak 2014an funtzionamenduan egon daitezen.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren konpromisoari buruzkoa, Tuterako Ospitaleko eraikin berriko operazio-gelak, dilatazio-gelak, erditzeko gelak eta gainontzeko gelak 2014an funtzionamenduan egon daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de

Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Osasun Batzordeak Tuterako ospitalera iragan urtarrilaren 17an egindako bisitaren ostean aurkezten da gaurkotasun handiko galdera.

Nafarroako Gobernuak, eta zehazki Osasun Departamentuak, zer konpromiso dute Tuterako Ospitaleko operazio-gelak, dilatazio-gelak eta erditzeko gelak nahiz eraikin berriko gainontzeko gelak eta instalazioak 2014an funtzionamenduan egon daitezen? Zer kontusailekin eta zuzkidura zehatzekin egingen da egin beharreko inbertsioa, zeina 3 milioi eurotik gorakoa baita, beharrezkoa den guztia behar bezala ziurtatzeko? Zer epe zehatz darabilzue konpromisoa gauzatu dadin?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Galdera, Administrazioa "mehetze" aldera Gobernuko lehendakariak hartutako ekimenei, helburuei eta irizpideei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Administrazioa "mehetze" aldera Gobernuko lehendakariak hartutako ekimenei, helburuei eta irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 17an, bere alderdiaren Kontseilu Politikoa egin zenean, Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak adierazi zuen bere asmoa zela administrazioa "mehetzen" jarraitzea.

Zer ekimen proposatu edo burutu behar ditu? Zer helburu eta zer irizpiderekin? Noraino heldu nahi du?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroan FMko irrati-lizentziak edo -frekuentziak banatzeari buruzko epai irmoak betetzeari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroan FMko irrati-lizentziak edo -frekuentziak banatzeari buruzko epai irmoak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

rrako Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 23ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ebazpen judizialak betetzetik heldu dira, 2006tik aitzina, Nafarroan FMko irrati-lizentziak edo -frekuentziak banatzeari buruzko erabaki edo intzidente judizial guztiak, bai Nafarroako Auzitegi Nagusiarenak, bai Auzitegi Gorenarenak. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak prest al dago edo nahi al du auzitegi eskudunak berak betearaz ditzan auzi horri buruz 1998tik aitzina izandako epai irmoak?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltza-

Galdera, Administrazioa mehetze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak dituen asmoei buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Administrazioa mehetze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak dituen asmoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer asmo ditu, bere adierazpenei jarraikiz, Administrazioa mehetzeko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

